# INFORME DE FISCALIZACION

## AYUNTAMIENTO DE UBIDEA

# 1990

TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

## OPINION

De conformidad con la Ley 1/1988 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia, hemos fiscalizado la actividad del Ayuntamiento de Ubidea durante el ejercicio 1990.

1.- El Ayuntamiento no dispone de registros contables. Los libros contables, cuyo mantenimiento exige la normativa vigente, son:

- Libro de Caja.
- Libro de Arqueos.
- Diario General de Intervención de Ingresos y de Pagos.
- Libro de Inventarios.

Se incumple así el artículo 457 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local.

2.- El Ayuntamiento no confecciona las Cuentas exigidas por el artículo 459 de la anterior norma legal, que son:

- Cuenta General de Presupuestos: incluye la Liquidación del Presupuesto del ejercicio y el Estado de Ejecución de los Presupuestos Cerrados (Resultas).
- Cuenta de Administración del Patrimonio.
- Cuenta de Operaciones Extrapresupuestarias (Valores Independientes y Auxiliares del Presupuesto).
- Cuenta de Tesorería.

3.- El último presupuesto aprobado por el Ayuntamiento es el del ejercicio 1988, que según el artículo 446.6 del Texto Refundido citado anteriormente, era el vigente en el año 1990. Dicho presupuesto contenía créditos de gasto, excluido el programa de inversiones cuya prórroga no es automática, por importe de 4.412 miles de pesetas. Los pagos efectuados mediante las cuentas corrientes del Ayuntamiento durante 1990 ascienden a 28 millones de pesetas, superando injustificadamente lo autorizado por el Pleno.

4.–Solicitados los expedientes correspondientes a las principales adquisiciones realizadas durante 1990, el Ayuntamiento tan solo nos facilitó las facturas/certificaciones correspondientes, no pudiendo probar documentalmente que se hayan respetado los principios básicos de publicidad, concurrencia y eficiencia en los que se basa la normativa de contratación administrativa.

La inexistencia de registros contables que nos impide opinar sobre la actividad económica del Ayuntamiento, la realización de pagos sin la previa autorización del Pleno y la inexistencia de constancia documental sobre el respeto de los principios básicos de la contratación administrativa, nos permiten concluir que el Ayuntamiento no ha respetado la legalidad vigente.

**Resumen de los cobros y pagos producidos durante 1990**

Hemos obtenido los extractos bancarios de las cuentas corrientes municipales, así como información de la Diputación Foral referente a los pagos realizados por ésta al Ayuntamiento. Asímismo, se han comprobado los principales cargos bancarios con su documentación soporte. Los cobros y pagos con soporte bancario de 1990 corresponden a los siguientes conceptos:

| | |
|---|---|
| Préstamo Diputación Foral(FROM) | 14.685 |
| Participación en tributos concertados (Udalkutxa) | 11.523 |
| Alquiler Herriko Taberna | 1.056 |
| Otras subvenciones de Diputación Foral | 3.404 |
| Participación en tributos no concertados | 1.405 |
| Tributos gestionados por D.Foral: IBI y lics.fiscales | 140 |
| Tributos de gestión municipal: circulación, agua, basuras, impuesto sobre construcciones | 871 |
| Intereses cuentas corrientes | 226 |
| Subvenciones G.Vasco | 228 |
| Otros menores | 75 |
| TOTAL COBROS | 33.613 |

| | |
|---|---|
| Urbanización Pza.San Juan | 14.685 |
| Adquisición mobiliario | 4.905 |
| Redacción proyecto y dirección obra Pza.S.Juan | 638 |
| Reforma Herriko Taberna (liquidación) | 420 |
| Salario secretario | 504 |
| Alumbrado | 808 |
| Otros | 5.929 |
| TOTAL PAGOS | 27.889 |

La tesorería a 31 de diciembre de 1990 se hallaba depositada en tres cuentas corrientes, sumando un total de 13.575 miles de pesetas. De ellas 11.477 estaban depositadas en cuentas retribuidas al 0,1 por ciento y el resto al 8 por ciento.

El préstamo concedido por la Diputación Foral de Bizkaia (FROM) al Ayuntamiento es por un importe máximo de 18.434 miles de pesetas, y devenga un interés del 8 por ciento, amortizándose en mensualidades hasta diciembre de 1995. El Ayuntamiento desconocía el total dispuesto de este préstamo a 31 de diciembre de 1990.

## DEFICIENCIAS Y RECOMENDACIONES

El Ayuntamiento incumple la normativa que regula la actividad de la Administración, puesto que no pudo mostrarnos, en las fechas de nuestra visita, la siguiente documentación:

- Actas del Pleno y decretos de alcaldía.
- Expedientes de contratación.
- Aprobaciones y publicaciones de tasas y precios públicos.
- Presupuestos desde 1988.
- Liquidaciones desde 1984.

La plantilla del Ayuntamiento constaba en 1990 de la única plaza del Secretario. La persona que ocupaba dicha plaza prestaba servicio a los ayuntamientos de Zeanuri y Ubidea, dedicando a este último un total de 4 horas semanales, lo que parece insuficiente para desarrollar adecuadamente la totalidad de tareas precisas para una gestión eficaz de acuerdo con la legalidad.

A pesar de la anterior consideración, es preciso destacar que el Secretario no ha cumplido siquiera con una de sus tareas básicas: el levantamiento de actas de las reuniones plenarias.

El aumento de recursos destinados a la gestión administrativa puede materializarse mediante las siguientes alternativas: contratar asesoramiento contable, mancomunar la función administrativa e incrementar la plantilla.

El Ayuntamiento ha optado por la tercera: a inicios de 1991 se amplían los recursos humanos. El nuevo Secretario dedicará 8 horas semanales al Ayuntamiento y se contrata a un auxiliar administrativo.

A pesar del incremento de medios, a la fecha de realización de este Informe, no se observan variaciones sustanciales en los métodos administrativos y de gestión anteriormente descritos, por lo que es preciso insistir en algunos aspectos que consideramos básicos para regularizar la anómala situación del año 1990 y anteriores:

- *Mantenimiento de archivos de actas del Pleno y decretos de alcaldía.*

- *Mantenimiento de los libros oficiales que deberán soportarse por los correspondientes mandamientos.*

- *Control de los saldos bancarios, realizando conciliaciones periódicas entre los saldos contables y los de los extractos. Mantener el criterio, adoptado por sugerencia de este Tribunal, de reducir las cuentas corrientes a dos, retribuidas convenientemente: una para la gestion recaudatoria exclusivamente y otra para los cobros de subvenciones y pagos a suministradores.*

- *Respetar los principios de concurrencia y eficiencia en la contratación, guardando en los expedientes la constancia documental que generen las adquisiciones.*

Las aparentes dificultades que el Ayuntamiento tiene para ejecutar por si mismo un plan de regularización como el citado y la circunstancia de que se trate del único municipio de su Territorio Histórico y de la Comunidad Autónoma que en el ejercicio de 1990 no disponía de ningún registro contable, harían precisa una especial colaboración del Servicio de Asesoramiento a los Entes Locales de la Diputación Foral de Bizkaia, con el objetivo de garantizar una adecuada gestión de fondos públicos sujeta a la legalidad vigente.

ALEGACIONES

En relación al informe realizado por el Tribunal que usted preside respecto a la liquidación del Presupuesto del Ayuntamiento de Ubidea del ejercicio de 1990, señalar que si bien estamos de acuerdo con la mayor parte de las puntualizaciones realizadas, hay que realizar una serie de matizaciones .

En cuanto al primer punto de dicho informe, si bien es cierto que el Ayuntamiento no dispone de dichos libros obligatorios, también lo es que esta realizando un esfuerzo por introducirlos en la dinámica municipal diaria.

También hemos de matizar que los principios básicos de publicidad, concurrencia y eficacia están siendo respetados en las adquisiciones realizadas en la actualidad por el Ayuntamiento.

En cuanto a las recomendaciones, en estos momentos ya se han realizado algunos cambios: el archivo de actas del Pleno y Decretos de Alcaldía está completo y se ha aprobado el Presupuesto General para 1992.

# FISKALIZATZE-TXOSTENA

## UBIDEAKO UDALA

# 1990

TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

## IRITZIA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legearekin bat etorriaz, Ubideako Udalak 1990eko ekitaldian zehar izandako jarduera fiskalizatu dugu.

1.- Udalak ez du kontularitzazko erregistrorik. Indarrean dagoen Legediak kontularitzazko hauek izatea agintzen du:

- Kutxa Liburua.
- Dirukontaketa Liburua.
- Sarrera eta Ordainketetarako Artekaritzaren Egunkari Orokorra.
- Ondasun zerrenden Liburua.

Honela bada, Toki Jaurbideari buruzko gaietan indarrean dauden Legezko Erabakien Testu Bateratuko 457. artikulua urratu da.

2.- Udalak ez ditu arestian aipatutako Lege-araudiaren 457. artikuluak agintzen dituen kontuak egiten. Hara hemen:

- Aurrekontuen Kontu Orokorra: Ekitaldiko Aurrekontuaren kitapena eta Amaitutako Aurrekontuen Egiterapen Egoera (Gainerakoak) besarkatzen ditu.
- Ondarearen Administrazio Kontua.
- Aurrekontuz kanpoko Eragiketen Kontua (Aurrekontuaren Balore Aske eta Lagungarriak).
- Diruzaintza Kontua.

3.- Udalak oneritzitako azken aurrekontua 1988ko ekitaldiari dagokiona da, aurrez aipatutako Testu Bateratuaren 446.6. artikuluaren arabera 1990ean indarrean zegoena zelarik. Aurrekontu honek, luzapen automatikoa ez duen inbertsio programa alde batera, 4.412 milaka pta.tako zenbatekozko gastu-kredituak biltzen zituen. Udalak dituen kontu-korronte bitartez 1990ean egindako ordainketak 28 miloi pta.takoak dira, Osoko Bilkurak baimendutakoa bidegabe gaindituaz.

4.- 1990ean zehar egindako erosketa nagusiei dagozkien espedienteak eskatu zitzaizkielarik, Udalak horiei zegozkien ordainagiriak/egiaztagiriak baizik ez zizkigun luzatu eta honenbestez, ezin egiaztatu izan dugu administrazioko kontratazioari buruzko araudiak oinarri dituen publizitate, lehiaketa eta eraginkortasun printzipio nagusiak gorde direnik.

Udalaren jarduera ekonomikoari buruzko iritzirik ematea eragozten digun kontularitzazko erregistrorik ezak, aurrez Osoko Bilkurari baimenik eman gabe ordainketak egiteak eta administrazio-kontratazioaren printzipio nagusiak gorde izanaren agiri bidezko adierazpenik ez izateak, Udalak ez duela indarrean dagoen legezkotasuna bete ondorentzea bideratzen digu.

**1990ean zehar egindako kobraketa eta ordainketen laburbilduma.**

Udal kontu-korronteetako banku-laburpenak ezezik, Foru Diputazioak Udalari egindako ordainketei buruzko informazioa ere eskuratu dugu. Gainera, banku-kargurik nagusienak eta horien agiri euskarriak egiaztatu dira. 1990eko banku-euskarridun kobraketa eta ordianketak ondoko kontzeptuoi dagozkie:

| | |
|---|---|
| Foru Diputazioaren mailegua (FROM) | 14.685 |
| Itundutako zergetan partaidetza (Udalkutxa) | 11.523 |
| Herriko Tabernaren alokairua | 1.056 |
| Foru Diputazioaren bestelako dirulaguntzak | 3.404 |
| Itundu gabeko zergetan partaidetza | 1.405 |
| Foru Dip.ak kudeatutako zergak: IBI eta Iiz. fiskalak | 140 |
| Udal kudeaketazko zergak: zirkulazioa, ura, zaborrak, eraikuntzen gaineko zerga | 871 |
| Kontu korronteetako interesak | 226 |
| E. Jaurlaritzaren dirulaguntzak | 228 |
| Bestelako txikiak | 75 |
| KOBRAKETAK GUZTIRA | 33.613 |
| San Juan Pza. hiritartzea | 14.685 |
| Onibarrak erostea | 4.905 |
| Egitasmoa idaztea eta S. Juan Pza.ko lanen zuzendaritza | 638 |
| Herriko Taberna berritzea (kitapena) | 420 |
| Idazkariaren soldata | 504 |
| Argiteria | 808 |
| Bestelakoak | 5.929 |
| ORDAINKETAK GUZTIRA | 27.889 |

1990eko abenduaren 31an diruzaintza hiru kontu-korronteetan banatuta zegoen, guztira 13.575 milaka pta.tako zenbatekoa osatzen zutela. Hauetatik 11.477 ehuneko 0,1ean ordaindutako kontuetan zeuden jarrita, eta gainerakoa ehuneko 8an.

Bizkaiko Foru Diputazioak (FROM) Udalari emandako mailegua 18.434 milaka zenbatekodun gehienezko zenbatekoa da eta ehuneko 8ko interesa zorpidetzen du, 1995eko abendura arte hilabetekoetan amortizatzen dela. Udalak 1990eko abenduaren 31an ez zekien mailegu honetatik erabilitako guztia.

## HUTSAK ETA GOMENDIOAK

Udalak ez du Administrazioaren jarduera araupetzen duen araudia betetzen, bisita egin genion egunetan ezin azaldu izan bait zigun ondoko agiri-sorta:

- Osoko Bilkuretako Agiriak eta Alkatetza dekretuak.
- Kontratazioko espedienteak.
- Tasa eta prezio publikoen onerizpen eta argitarapenak.
- 1988az geroztik Aurrekontua.
- 1984az geroztik Kitapenak.

1990ean Udalaren plantilla Idazkariaren postu bakarrak osatzen zuen. Postu hori betetzen zuen pertsonak Zeanuri eta Ubideako Udalei zerbitzu ematen zien, azkenekoan asteko 4 ordu egiten zituela; ordu kopuru honek ez dirudi nahikoa indarreko legediaren arabera kudeaketa zorrotza burutzeko beharrezko diren egiteko guztiei aurre egin ahal izateko.

Esan beharra dago Idazkariak ez duela bere oinarrizko egiteko bat ere burutu, Osoko Bilkuretako agiriak jasotzea alegia.

Administrazio kudeaketarako baliabideen areagotzea ondoko aukera hauen bitartez gauza daiteke: kontularitzazko aholkularitza kontratatu, administrazio egitekoa elkartu eta plantilla handitzearekin.

Udalak hirugarren aukerari heldu dio: 1991 hasieran giza-baliabideak ugaldu ziren. Idazkari berriak 8 ordu emango ditu udaletxean eta Administrazio laguntzaile bat kontratatu zen.

Baliabideak areagotu diren arren, Txosten hau egin den datan ez da aldaketa nabarmenik somatu aurrez azaldutako administrazio eta kudeaketazko metodoetan eta honenbestez 1990 eta lehenagoko urteetako egoera traketsa onbideratzeko oinarrizko iritzen diegun hainbat alderdi azpimarratzea beharrezkoa da:

- *Osoko bilkuretako agirien eta Alkatetza Dekretuen artxiboei eustea.*

- *Liburu ofizialak gordetzea, dagozkien agindu bitartez eutsi beharko direnak.*

- *Banku saldoak kontrolpetu, kontularitzazko saldoen eta laburpenezkoen artean aldizkako berdinkatzeak eginez. Epaitegi honen aholkuz kontu-korronteak bitara mugatzeko hartutako erabakiari eutsi, behar bezala banatuak: bata dirubilketazko kudeaketarako soilik eta bestea dirulaguntzak kobratzeko eta hornitzaileei ordaintzeko.*

- *Kontratazioan lehiaketa eta eraginkortasun printzipioak errespetatu, espedienteetan erosketetatik eratorritako agiriak gordeaz.*

Antza denez Udalak bere kabuz, adierazi dugun bezalako egitasmo bat aurrera bultzatzeko dituen arazoek eta 1990eko ekitaldian inongo kontularitzazko erregistrorik ez zuen Lurralde Historikoko eta Autonomi Elkarteko udal bakarra izateak, Bizkaiko Foru Diputazioko Toki Entitateentzako Aholkularitza Zerbitzuaren lankidetza berezia izatea eskatuko lukete, indarrean dagoen Legediari meneratutako diru publikoen kudeaketa egokia bermatzeko helburua duela.

ARRAZOIBIDEAK

Zuk buru egiten duzun Epaitegiak burututako txostenari dagokionez, 1990eko ekitaldiko Ubideako Udalaren Aurrekontu kitapenari buruzkoa, egindako zehaztapen ia guztiekin bat gatozen arren, hainbat adierazpen egin beharrean gaude.

Txostenaren lehenengo atalari dagokionez, Udalak derrigorrezkoak diren liburu horiek ez dituela egia bada ere, egia da ere eguneroko udal jardueran barne–sartzeko saiakera bat egiten ari dela.

Berebat publizitate, lehiaketa eta eraginkortasun printzipio oinarrizkoak Udalak egiten dituen erosketetan guztiz gordetzen direla adierazi beharrean gaude.

Gomendioei dagokienez, iadanik egin dira hainbat aldaketa: Osoko bilkurako agirien eta Alkatetza Dekretuen artxiboa osaturik dago eta 1992rako Aurrekontu Orokorrari oneritzia eman zaio.